

Aingern Epaltza

## Bazterrak nahasten lehendakari

M

aiatzaren 18a, igandea. Urduritasuna nagusi Iruñean. Beterik daude telebistadun ostatuak. Karrikan, irrati aparatuen kableak ageri dira ibiltarien belarrietatik. Osasunak liga bukaera eskasa egin du. Puntu bakar batzuen gorabeheran dago talde nafarrak lehen mailako zeruan segitzea edo bigarren mailako infernura amiltzea. Salbabidea bermatua izanen du Racingen kontra Santanderren duen partida irabazita. Horretan huts eginez gero, gorritxoan kinka larri berean dauden bertze talde batzuen partiden emaitzek erabakiko dute eroriko den ala zutik egonen. Lau zakur berde axolagabe kenduta, Iruñeko seme-alaba guztiak erne daude, ezinegon batean, Kantabriako hiriburuan zer gertatuko. Sortzen-Ikasbatuazek antolaturik, euskal eskola publikoaren aldeko festa ospatzen ari dira Taconean, eta han ere jendeak Osasuna gogoan. Jaialdiari akabera emateko tenorea etortzen ari da, baina oraindik falta da kontzertu bat gazteen aldean. Agertu dira musikariak. Agertu da kantaria. Haren agur irribarretsuak ortots egin du entzuleen belarrietan: “gaur bigarrenera jaitsiko gara!”.

*Lendakaris Muertos* sko kideekin ez dakit nola moldatuko nintzatekeen ostatu baten barnean garagardoka. Ordea, maite dut haien ganberrokeria, bazterrak nahasteko duten gogo. Izen beretik hasita, *Dead Kennedys* San Franciscoko aspaldiko bandaren oihartzun garbian.

70eko hamarkadan lehertu zenetik, *punk* mugimenduak itzal luzea izan du gurean. Orogen kontra jotzeko eta inguruak hankaz goratzeko grinak bat egin izan du gure belaunaldi bat baino gehiagoren samin nerabearekin. Bertze batzuek, berriz, *heavy* edo berrikiagoetan, Oi! musikan aurkitu dute behar zuten atxikimendu estetiko eta musikala. Politikan gogorrenera jo den toki batean, soinu gogorrak izan dira hemengo gazte musikaren ikur eta bereizgarria.



ALBERTO ELOSEGGI

Orain ez gaude 80ko loraldian, baina katea ez da eten. Dozenaka talde ditugu errezeta bertsuari atxikiak: erritmo bizia, melodia guti eta *tasun* atzizkiaren presentzia beren letretan. Transzendentziarako joera, hitz potolo eta pisuenganako isuria eta, oro har, umore eza dira, orokorrean, haien kanten ezaugarriak.

Paisaia horretan, salbuespen dira *Lendakaris Muertos*. Musikari gisa, gure herri eta auzoetan sortu diren bertze ehunka banden banaz bertzean ibiliko dira. Haien letrak, aldiz, azkar nabarmentzen dira bertzeen artetik. *Lendakariak*, zaunka egin beharrean, irri egiten diote beren inguruari. Gisa honetako taldeen ohiko etsaiak –kapitala, boterea, agintari politikoak, Espainia– ez ezik, guztiak dira

haien zirien jomuga. Inoiz ere entzunen ez dituztenak ikaratzten ahalegintzeari uko egin gabe, hurbilenak ere asaldatzera abiatu dira beren ironiarekin eta beren sarkasmoarekin: *Gora España, Veterano de la kale borroka, Se habla español, ETA, deja alguna discoteca, Héroe de la clase obrera...* horrelako izenburuek famatu dituzte. Baita etsaiak sorrarazi ere, taldekideek behin baino gehiagotan erran badute ere, probokatu,

ulermen motzeko jendeak baizik ez dituztela probokatzen.

*Lendakariak*, bistan dena, erdaraz kantatzen dute. Musika formatuan, euskarazko auto ironiak, bertzelako soziologia, bertzelako psikologia eta egun ez duen soziolinguistika beharko ditu noski, posible izateko. Hurrengo hamarkadan, akaso.

Maiatzaren 18an, Taconerako kontzertuak erdipurdiko bukaera izan zuen. Entzule batzuk oihuka hasi ziren Iruñeko laukotearen kontra: “ETA, mátalos!”. Bertze batzuk hartxintzar jaurtita aritu zitzaizkion emanaldiak irau bitartean. Horietariko batek baxu jotzailea haztatu zuen bekainean. Odol jarioka, jotzen segitu zuen, kontzertua burutu arte. ■

Lendakariak, bistan dena, erdaraz kantatzen dute. Musika formatuan, euskarazko auto ironiak, bertzelako soziologia, bertzelako psikologia eta egun ez duen soziolinguistika beharko ditu noski, posible izateko.

Hurrengo hamarkadan, akaso